

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### Korrika

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-02-23

1	<b>Izena</b>	Euskaraz Koop Elkarte-AEK
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Helduen euskalduntzea, hizkuntza-normalkuntza, sentsibilizazioa
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>	E-mail: <a href="mailto:mertxe-m@aeek.eus">mertxe-m@aeek.eus</a> Tel:629466023
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	<b>Web:</b> <a href="http://www.korrika.eus">www.korrika.eus</a> / <a href="http://www.aek.eus">www.aek.eus</a> <b>Facebook:</b> facebook.com/aeek.euskalakari <b>Twitter:</b> twitter.com/EuskalakariAEK

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIKAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	<p>Korrika Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.</p> <p>1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen 1. Korrika antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudanik, 19 Korrika eta 36 urte igaro dira.</p> <p>2015eko martxoan egin zen azkena: 11 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatu zuen Korrikak hemeretzigarren aldiz. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe.</p> <p>Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da eskuz esku eta kilometroz kilometro korrikalarien artean; lekuko horren barruan, euskaldun ezagun batek Korrika helmugara iristean irakurriko duen mezua doa, ordura arte sekretupean gordetzen dena.</p> <p>Ehunka mila lagun izan dira parte-hartzaileak aurreko Korrika edizioetan. Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako hautua erakusten du. Korrika Euskal Herriko jendarteak astintzen duen gertakari bilakatu da. Bi urterik behin egiten den lasterketan parte hartzen duen jende kopuruak gora egiten du etengabe. Korrikaren antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen bitartean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi dira.</p>
---	-----------------------------	---

		<p>AEK-k antolatzen du Korrika: euskara berreskuratzea eta Euskal Herria berreuskalduntzea xede duen erakundea. Hori lortzeko, helduen euskalduntze eta alfabetatze alorrak jorratzen ditu batik bat: euskara eskolak, ikerkuntza, material didaktikoen sorkuntza, irakasleak prestatzeko ikastaroak... Baina baita kultur ekitaldien antolakuntza, euskara erabiltzeko mintzapraktika programak, lantegi eta erakundeen normalizazio planen diseinu eta gauzapena eta euskararen aldeko kontzientziatze kanpainak ere.</p> <p>Lehenengo alfabetatze taldeak 1965 inguruan sortu ziren, eta urte hartan antolatu zen alfabetatzearen aldeko lehenengo kanpaina. Alfabetatze taldeak Euskal Herri osoan sortzen ziren neurrian, agerian geratu zen euskara ez zekien euskal herritar multzo handi horri euskara irakasteko beharra. Horixe izan da AEKren urteotako zeregina. Halaxe sortu ziren, Euskaltzaindiaren babespean, gau-eskola izenekoak eta, geroago, euskaltegiak.</p> <p>Gaur egun, AEK helduen euskalduntze alfabetatzean aritzen den elkarterik garrantzitsuena dugu eta, administrazio-banaketak gaindituz, Euskal Herri osoan lan egiten duen bakarra. Horretarako, 500 irakasle baino gehiago ditu euskara eskolak ematen 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiagotan banatuta; eta horrez gain, normalizazio planak bideratzen laguntzeko zerbitzua, erabilera bultzatzeko programak, itzulpen zerbitzua eta AIZU! aldizkaria, besteak beste. Jakina denez, Iparraldeko eta Nafarroako ikasguen egoera larria da, eremu administratibo horietako euskaltegi eta gau-eskolek ez dute inondik ere behar dituzten diru laguntzak jasotzen, eta EAEko diru-laguntza politika oraindik ere ez da nahikoa. Korrikarekin jasotako dirua, beraz, Euskal Herri osoko Gau Eskola eta euskaltegiak laguntzeko erabiltzen du AEK-k.</p>
2	<b>Aurrekariak</b> (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	Sortu zen sasoiaren helburu ekonomikoa zuen, euskara sustatzearekin batera. Gaur egun xede berberak ditu, euskararen helduen irakaskuntzak dituen gabeziak estaltzera baitator; gure kasuan, AEK-k dituen beharrak neurri batean estaltzera, jakina baita oraindik ere helduen euskararen irakaskuntza normaldu bako arloa dela. Bi urterik behin egiten dugun Korrikak AEK-ri hauspoa ematen dio bere jarduna era normalizatuan emateko Euskal Herriaren luze-zabaleran.
3	<b>Helburuak</b>	Euskararen sustapena eta helburu ekonomikoa AEKren jarduna duintasunez garatzeko euskaltegi guztietan, normalkuntza jardueratan eta praktika jardueratan.
4	<b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>	Korrikaren esparru eta eragina jendarte osora zabaldu dugu: alderdi politiko, sindikatu, instituzio, kultur elkarte, kirol elkarte, norbanako...
5	<b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>	Aurretik aipaturiko guztiak laguntzaileak dira: alderdi, sindikatu, instituzio, kultur elkarte, kirol elkarte, norbanako... Horrez gain, herriz herri sortzen diren Korrika batzordeak, lan taldeak, kultur eragileak, sortzaileak...
6	<b>Inplementazio-epaia</b>	1980an sortu zen eta 19. edizioa 2015ean egin genuen. Hurrengoan, 20. edizioa, 2017an egingo dugu.

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	<b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	Aurretik esan bezala, hedapena lurraldeari dagokionez erabatekoa da, Euskal Herriko lurralde guztiak aintzat hartzen dituelako. Bestalde, jendartearen arlo guztiak zipriztintzen ditu: alderdi politiko, sindikatu, instituzio, kultur elkarte, kirol elkarte, norbanako...
9	<b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Zenbazezina da egindako inbertsioa. AEK-k egiten duenaz gain, Korrikan dauden lan taldeak, batzordeak, norbanakoak... Milaka lagun aritzen dira lanean modu batean edo bestean Korrikak aurrera egin dezan. Inbertsioa elkarlanean eta azulanean da.

10	<b>Lortutako emaitzak</b>	Emaitzak ezin daitezke zenbakitan eman. Jende oldeak hartzen du parte Korrikan, modu batean edo bestean, helduen irakaskuntzan 30.000 lagunetik gora ari dira. Dena, agian, ezin zaio Korrikari egotzi, baina Korrikak horretan zeresana baduela argi dugu.
11	<b>Dokumentazioa erreferentziatzko materiala</b>	AEK-k garatzen dituen proiektu eta ekimenen gaineko informazioa <a href="http://www.aek.eus">www.aek.eus</a> orrialdean ikusgai dago eta Korrikaren web orrialdean ekimenaren gaineko zehaztasun guztiak izaten dira behin Korrika bera aurkezten denean.
12	<b>Aurkezpen bideoa</b>	Korrika 19 bideoa: <a href="https://youtu.be/W9Wg2S4hosi?list=PLQ7B3QXOhR_W--96Q8YgjkMBXduwYvY7I">https://youtu.be/W9Wg2S4hosi?list=PLQ7B3QXOhR_W--96Q8YgjkMBXduwYvY7I</a> AEK Jendea bideoa: <a href="https://youtu.be/wSyDGJr5XeE">https://youtu.be/wSyDGJr5XeE</a>
13	<b>Intereseko informazio gehigarrik</b>	Munduan zehar, Britainian, Galesen, Irlandan... egiten dira Korrikak. Horrez gain, diasporak Korrika sasoian antolatzen dituenak mundu osoan zehar euskararen aldarria zabaltzeko.